

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO UDALEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BARNE BERDINTASUN PLANA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Zerbitzu Orokorretarako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko ekainaren 15ean, Udaleko Erregistroaren bitartez, LAB sindikatuak Udaleko Pertsonaleko zuzendaritzari, udaleko emakumeen eta gizonen artean laneko desberdintasunari buruzko informazio eskaera zuzendu zion.

Idatzian ongi azaltzen den moduan, Langileen Estatutuaren 64.artikuluak, gizonak eta emakumeak lana zein baldintzetan egiten duten inguruko informazio ezagutzeko eskubidea aitortzen du.

Zortzi hilabete geroago, aldiz, idatzian jasotako eskaeren inguruko informaziorik ez dute jaso. Urrian, abenduan eta urtarrilean Berdintasunerako Barne Batzordea bildu da baina datu segregaketaren inguruko informaziorik ez da eman. Gainera, Udaleko Barne Berdintasun Plana (2014-2017) gaindituta dago eta berria garatu behar da. Horretarako, LABek egin duen eskaeran jaso beharreko informazioa ezinbestekoa da.

EHBildu Udal Taldetik, emakumeok bizi dugun diskriminazioa zenbatekoa den erakusten duen adierazleetakoa bat gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala dela zalantzarik ez dugu eta baita partekatu ere, garaia dela egoera honen aurrean benetako konpromisoak hartzeko. Horretarako, behar beharrezkoa da egoera zein den ezagutzea, udal honetan gure jarduera burutzeko gizonak eta emakumeak lana zein baldintzetan egiten dugun jakitea eta identifikatzen diren ezberdintasunei erantzun ahal izateko, hurrengo Barne Berdintasun Plana garatzea.

Hori guztia dela eta, aurkezten dut honako

KONTROL MOZIOA

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hilabeteko epean, 2018ko ekainaren 15ean eta Udaleko Erregistroaren bitartez, LAB sindikatuak Udaleko Pertsonaleko zuzendaritzari zuzendu zion udaleko emakumeen eta gizonen artean laneko desberdintasunari buruzko informazio eskaera erantzun dezan.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hilabeteko epean, Barne Berdintasun Batzordea deitu, 2014-2017ko Barne Berdintasun Planaren inguruko balorazioa, udal barneko diagnostikoa eta Barne Berdintasun Plan berria egiteko dauden aurreikuspenak parteka ditzala.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Naiara Sampedro Perez

EH Bildu udal taldeko zinegotzia